


Ez dakien hori grabe
zahar, umé zein nerabe
gauza on asko ditugu baina
ez izan herabe.
Zer den denok gara jabe
gure herriko zutabe
Astigarraga ez da berdina
sagardorik gabe. (bis)

ASTIGARRAGA 2001



Trena datorkigu zuzen
natura guztiz suntsitzen
gure bailara apurtzekoa
noren asmoa zen
hau ez dut ongi ulertzen
denok elkartu gaitzen
aurrerapenak atzeratzeko
izan ez daitezten. (bis)

Agin Rezolak
Astigarragako herriari